



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2015EKO URTARRILAREN 9KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2015.01.09.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.  
Zinegotziak:  
Koldobike Gorostiza Uriguen and  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Mikel Leiza Etxeberria jn.  
Teodoro Pikabea Zubieta jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aurkeztutako idatzia.
- 3.-Simon Iturria Alzuri jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Hirigintzako txostenak arautzen duen ordenantza fiskala: behin betiko onespena.
- 5.-Felipebaita etxeko obrei buruz hasitako zigor espedientea.
- 6.-Ametxoko alderdian birlandatzeko baimena.
- 7.-Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma: diru laguntza eskaera.
- 8.-Baztan Ikastola: diru laguntza eskaera.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2014ko abenduaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-JOSE BENITO LIZARDI BEREAU JAUNAK AURKEZTUTAKO IDATZIA.**

Ikusirik Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aurkeztutako idatzia 3. poligonoko 71. eta 134. lur zatiak elkartzeko katastroko aldaketa egiteko eskatuz, dagoen bidea

kenduz, eta Modesto Taberna Petrirena jaunak 3. poligonoko 121. lur zatian duen bordari gehitutako pareta kentzeko eskatuz, lehengo egoerara bueltatuz.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen txostena aipatutako bordari buruz, non adierazten du kanpoaldeko pareta 1957. urtea baino lehen eraikia dela eta Arantzako Arauak geroztik idatziak direla.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Aberastasun Zerbitzuko txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Modesto Taberna Petrirena jaunaren bordari buruz eskatutakoa ez onartzea, aipatzen diren obrak ez dutelako gaur egungo araudiak bete beharrik.

2) Jose Benito Lizardi berau jaunarekin bilera bat egitea bide publikoaren eskaerari buruz.

### **3.-SIMON ITURRIA ALZURI MAIZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Simon Iturria Alzuri jaunak, Idoia eta Emizarreta alderdietan, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 207 eta 1. poligonoko 108. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Simon Iturria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **4.-HIRIGINTZAKO TXOSTENAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA: BEHIN BETIKO ONESPENA.**

2014ko azaroaren 6an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zen hirigintzako txostenak arautzen dituen ordenantza fiskala. Onespena 2014ko 231. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 25ean.

Halaber, herrian barna bandoa jarri zen.

Jendaurreko epea iragan da alegaziorik aurkeztu gabe.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Hirigintzako txostenak arautzen dituen ordenantza fiskala behin betikoz onestea.

2) Ordenantzaren edukia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3) Ordenantza Nafarroako Gobernura igortzea.

### **5.-FELIPEBAITA ETXEKO OBREI BURUZ HASITAKO ZIGOR ESPEDIENTEA.**

Arantzako Udalak 2014ko azaroaren 6an egindako bileran erabaki zuen M.Isabel Taberna Vergara andreari, Esteban Agesta Larrechea jaunari eta Jose Luis Baquedano Altamira jaunari zigorra jartzeko espedienteari hasiera ematea Felipebaita



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

etxean hasitako obrak proiektuan adierazitako altuera nabariki gailentzen zuelako (Udalak baimendu zuen 1,80 metroko altuera, hau da, teilatuaren tarimaren azpialdeko altuera maximoa 1,80 metro izatea eta emandako altuera gehiagoa zen) eta emandako altuera Arantzako Arau Subsidiarioekin bateraezina zenez obra geldiarazteko eta botatzeko agindua eman zen.

Halaber, alegazioak aurkezteko hamabost lan eguneko epea ematea erabaki zen euren eskubideen defentsan, akordio hau eta instruktoreak prestatu duen kargu plegua hartu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Ikusirik epean barne aurkeztutako alegazioak.

Ikusirik Udaleko Abokatuen alegazioei buruz egindako txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M.Isabel Taberna Vergara andreak, Esteban Agesta Larrechea jaunak eta Jose Luis Baquedano Altamira jaunak aurkeztutako alegazioak ez onartzea.

2) Interesatuei jakinaraztea, beti ere, zigorra gutxitzeko aukera izanen dutela aipatutako legearen 218. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen badute.

### **6.-AMETXOKO ALDERDIAN BIRLANDATZEKO BAIMENA.**

Nafarroako Gobernuako Mendi Zerbitzuko Zuzendariak baimena eman du, 2014ko abenduaren 15eko 799. ebazpenaren bidez, Ametxoko alderdian 4,40 hektarea landatzeko.

Ikusirik horrek suposatzen duen kostoa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako baimena hartu dela jakinaren gainean gelditzea.

2) Momentuz landaketa ez egitea.

### **7.-NAFARROAKO ONDAREAREN DEFENTSARAKO PLATAFORMA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak igorritako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 200,00 euroko laguntza ematea.

2) Arantzako egoera aztertzea eta eman daitekeen pausuak adieraztea eskatzea.

### **8.-BAZTAN IKASTOLA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Baztan Ikastolak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Nafarroa Oinez antolatzeke.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Baztan Ikastolari diru laguntzik ez ematea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bidez ematen delako.

### **9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**


Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 73. ebazpenetik 78. arte eta 2015eko 1. ebazpena).

### **10.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira izan

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Ander Almandoz Indacoechea.



A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Mull', with a long horizontal stroke extending to the right.